



LH-5. MAILA

1. UNITATE DIDAKTIKOA

"Nor naiz ni?"



LH5-1UD.NOR NAIZ: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Xedea norberaren estimuarekin eta nortasunarekin lotutako alderdiak lantzea da, berdintasunezko harremanetarako oinarritzko zutabe diren heinean. Beti ere Giza Eskubideen ikuspegitik: "gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute" (1. Atala)

KONTZERTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETAK
<p>1. Berdintasunak norberaren askatasuna eta pertsonen aniztasuna bermatzen du. Ikasle bakoitza pertsona osoa eta den modukoa izateko askatasuna, bere burua ezagutzuz, onartuz, garatuz eta maitatuz. Beste pertsonak ezagutzuz, onartuz, errespetatuz eta elkar zainduz. Pertsonen askatasuna eta aniztasuna balio handiko altxorra da.</p>	<p>1. Nork bere burua eta beste pertsonak ezagutu. Zein urrats edo modu aukeratu dituzte ikasleek beste pertsonak nolakoak diren ezagutzeko? Urrats baliotsuak? Eta nork bere burua nolakoak den ezagutzeko? Besteak ezagutzeko berberak? Neskek zein mutilek urrats berak aukeratu dituzte? Ez? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Nork bere burua aurreiritzi eta tranparik gabe ezagutzea. Soilik garena ezagutzuz eta onartuz, ahal dugu aldatu eta nahi duguna izan.</p> <p>→ Pertsona bakoitza altxorra da. Aniztasuna aberastasuna da. Pertsona bakoitzak balio errepika ezina du. Pertsonak anitzak gara.</p> <p>→ Genero etiketa eta estereotipoak gainditu. Genero aurreiritzi eta ereduak bakoitzaren askatasunaren eta pertsonen aniztasunaren kontrakoak dira. Norbera izateko trabak eta mugak jartzen dizkigute. Sexuaren arabera bi taldetan sailkatu eta "klonatzen" gaituzte.</p>
<p>2. Genero estereotipoak, rola eta ereduak askatasunaren eta aniztasunaren aurkakoak dira. Soilik pertsonaren arlo batzuk garatzen dituzte, soilik bizitzaren arlo batzuetan autonomoak izaten erakusten dute ("laranja erdiak"). Sexu bateko pertsona guztiak berberak izan eta egin behar dutela diote ("emakume guztiak halakoak dira", "gizon guztiak horrela egiten dute").</p>	<p>2. Genero etiketak, egotzitako aurreiritzi faltsuak. Ikasleek ondo bereizi dituzte emakumei eta gizonei erantzen zaizkien etiketak? Neskek eta mutilek etiketa berak aukeratu dituzte? Ez? Zeintzuk? Zergatik? Etiketekin bat ez datozen emakumeak edo gizonak aurkitzea zaila egin zaie? Eta bakoitzak berarentzat emakume eta gizon ereduak aurkitzea? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Auto-estimua indartu behar da garena izateko eta, aldatuz, nahi duguna izateko. Gure buruari buruz hitz positiboak behar ditugu, guran konfiantza izateko, genero etiketei aurre egiteko.</p>
<p>3. Genero etiketak gainditzeko gure buruari konfiantza ematen dioten hitzak eta pertsonak. Norbera den bezala ezagutu, onartu eta izateko eta nahi duen bezalakoak izateko, genero etiketak identifikatu eta baztertu behar dira.</p>	<p>3. Auto-estimurako hitz eta pertsona positiboak. Ikasleek ondo identifikatu dituzte hitz positiboak eta negatiboak? Neskek zein mutilek hitz berak jaso dituzte? Neskek eta mutilek hitzen ondorio berak idatzi dituzte? Ez? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Sendatu eta laguntzen duten hitzak entzun eta esan, esan eta entzun. Gure burua eta besteena errespetatu, onartu, zaindu eta indartu.</p>

→ **Pertsona bakoitzari izan nahi duena izateko eskubidea bermatu.**

→ **Genero estereotipoak eta rola baztertuz aniztasuna sustatu.**